

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Zuzentaraua: 2008/22/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, merkatu arautuan negoziatzen diren baloreen jaulkitzaileei buruzko informazioaren gardentasun-betekizunak bateratzearen inguruko 2004/109/EE Zuzentaraua aldatzen duena, Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenei dagokienez

---

Ondoko itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiria du.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2008/22/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 11 de marzo de 2008, por la que se modifica la Directiva 2004/109/CE sobre la armonización de los requisitos de transparencia relativos a la información sobre los emisores cuyos valores se admiten a negociación en un mercado regulado, por lo que se refiere a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 76, 2008/03/19koa*)»  
2008/22/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 76/50, 2008/03/19koa)

**2008/22/EE ZUZENTARAU, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,**

**2008ko martxoaren 11koa,**

**merkatu arautuan negoziatzen diren baloreen jaulkitzaileei buruzko informazioaren gardentasun-  
betekizunak bateratzearen inguruko 2004/109/EE Zuzentarau aldatzen duena, Batzordeari  
esleitutako betearazpen-eskumenei dagokienez**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR  
BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europar Batasuna eratzeko Tratatuak, eta, bereziki, haren 44.  
eta 95. artikulua aztertu dituzte,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen Irizpena<sup>2</sup> aztertu  
dute,

Europako Banku Zentralaren Irizpena<sup>3</sup> aztertu dute,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki<sup>4</sup>,

Honako hauek hartu dira kontuan:

- (1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/109/EE Zuzentarauak<sup>5</sup> ezartzen duenez, neurri jakin batzuk Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/CE Erabakiaren<sup>6</sup> arabera hartu behar dira. Erabaki horrek Batzordeak esleitu zaizkion betearazpen-eskumenak erabiltzeko prozedurak ezartzen ditu.
- (2) 1999/468/EE Erabakia 2006/512/EE Erabakiak aldatu zuen. Erabaki horrek neurri orokorrak hartzeko kontrolpeko arautze-prozedura jarri zuen abian. Neurri horien helburua Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera hartutako oinarritzko egintzetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea da, eta, beharrezkoa izanez gero, elementu horietako batzuk ezabatzea edo funtsezkoak ez diren beste elementu batzuen bidez egintza hori osatzea.
- (3) Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006/512/EE Erabakiari buruz hartutako Adierazpenaren<sup>7</sup> arabera, kontrolpeko arautze-

prozedura Tratatuaren 251. artikulua araututako prozedurari jarraituz hartutako indarreko egintzetan aplikagarria izan dadin, egintzak prozedura aplikagarrien arabera egokitu behar dira.

- (4) Batzordeari eskumenak ematea komeni da, eranskinak alda ditzan eta 2004/109/EE Zuzentarau aplikatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzan. Hona hemen helburuak: Zuzentaru horretan ezarritako definizio batzuen alderdi teknikoak zehaztea (bereziki, likidazio-ziklo laburraren gehieneko iraupena, merkatu-egunen egutegia, zer baldintzatan izan behar litzatekeen boto-eskubideen eraketaren edo lagapenaren berri eta merkatu-sortzaileek eta kudeaketa-sozietateek bete behar dituzten independentzia-baldintzak); finantza-merkatuen aurrerapen teknikoak kontuan hartzea; auditorearen berrikuspenak nolako izan behar duen argitzea; finantzetako egoera-orrien laburpenen gutxieneko edukia zehaztea; partaidetza garrantzitsuak jakinarazteko eta hedatzeko prozedurak eta jaulkitzaileen jatorritzko estatu kideko organismo eskudunak araututako informazioa artxibatze prozedurak gehiago zehaztea; eta informazioa biltegitratzeko mekanismoen gutxieneko arauak zehaztea. [Irispide orokorreko neurriak direnez eta haien xedea 2004/109/EE Zuzentaruaren funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta funtsezkoak ez diren elementuz osatzea denez, 1999/468/EE Zuzentaruaren 5 bis artikuluan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.](#)
- (5) 2004/109/EE Zuzentaruak denbora-muga ezarri zien Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenei. 2006/512/EE Erabakiaren gaineko Adierazpenean, hauxe jakinarazi zuten Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak: erabaki horrek konponbide horizontal eta egokia eskaintzen diola Europako Parlamentuak elkarrekin erabakitzeko prozeduraren bidez onartutako tresnen aplikazioa kontrolatzeko desioari, eta, beraz, betearazpen-eskumenak denbora-mugarik gabe eman behar zaizkiola Batzordeari. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, bestalde, beste hau adierazi zuten: ahalik eta bizkorren onartuko zituztela Batzordeari betearazpen-eskumenak eskuordetzeko azken data aurreikusten duten tresnetako xedapenak indargabetzeko proposamenak. Kontrolpeko arautze-prozedura abian jarri ostean, ezabatu egin behar da 2004/109/EE Zuzentaruaren denbora-muga finkatzen duen xedapena.
- (6) Batzordeak aldian behin aztertu behar du esleitu zaizkion betearazpen-eskumenei buruzko xedapenak ondo funtzionatzen ote duten, Europako Parlamentuak

<sup>2</sup> C 161 EO, 2007-07-13koa, 45. or.

<sup>3</sup> C 39 EO, 2007-02-23koa, 1. or.

<sup>4</sup> Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko azaroaren 14koa — oraindik ez da Egunkari Ofizialean argitaratu — eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko martxoaren 3koa.

<sup>5</sup> L 390 EO, 2004-12-31koa, 38. or.

<sup>6</sup> L 184 EO, 1999-07-17koa, 23. or. Erabaki hori 2006/512/EE Erabakiak — L 200 EO, 2006-07-22koa, 11. or. — aldatu zuen.

<sup>7</sup> C 255 EO, 2007-10-21ekoa, 1. or.

## Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

eta Kontseiluak errazago zehaztu dezaten Batzordeari ezarritako eskumen horien eraginkortasuna eta prozedurazko betekizunak egokiak diren, eta eraginkortasun eta erantzukizun demokratikoak bermatzen dituzten.

- (7) Hortaz, bidezkoa da 2004/109/EE Zuzentaraua aldatzea.
- (8) Zuzentarau honen bidez 2004/109/EE Zuzentaraan egin beharreko aldaketak teknikoak direnez eta Komitearen prozedurari bakarrik eragiten diotenez, ez dago zertan estatu kideek bereganatu. Horrenbestez, ez da beharrezkoa horri buruzko xedapenik ezartzea.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

### 1. artikulua

#### Aldaketak

2004/109/EE Zuzentaraan aldaketa hauek egin dira:

- 1) Bigarren artikuluan, honako testu honek 3. paragrafoa ordezkatu du:

«3. Finantza-merkatuen bilakaera teknikoa kontuan izateko eta 1. paragrafoa uniformetasunez aplikatzen dela bermatzeko, Batzordeak 1. paragrafoan ezarritako definizioei buruzko betearazpen-neurriak hartuko ditu, 27. artikuluko 2. eta 2. *bis* paragrafoetan aipatutako prozeduren arabera.

Hain zuzen, hau egin beharko du Batzordeak:

- a) Lehen paragrafoko i) idatz-zatiko ii) tartekiaren ondorioetarako, jaulkitzaileek jatorrizko estatu kidea nola aukeratu arautuko duten prozedura-eskakizunak zehaztea.
- b) Jatorrizko estatu kidea aukeratzeko —1. paragrafoko i) idatz-zatiko ii) tartekian aipatu da— egokia denean, jaulkitzailearen historialari dagokion hiru urteko aldia doitzea, Erkidegoko zuzenbidean merkatu arautu batean kotizatzea onartzeko aldi baterako baldintza berri baten arabera.
- c) Lehen paragrafoko l) idatz-zatiaren ondorioetarako, baliabide elektronikoz hartu behar ez diren baliabideen zerrenda orientagarria xedatzea. Horrela, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1998ko ekainaren 22ko 98/34/EE Zuzentaraan V. eranskina hartuko litzateke kontuan. Zuzentarau horrek informazio-gizartearen zerbitzuen inguruko

informazio-prozedura ezartzen du, arau eta araudi teknikoen eta zerbitzu horiei buruzko arauen ingurukoa\*, 27. artikuluko 2. paragrafoan araututako arautze-prozeduraren arabera.

Bigarren lerrokadako a) eta b) idatz-zatietan aipatutako neurriak, zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 27. artikuluko 2. *bis* paragrafoan jasotako kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.

\* L 204 EO, 1998-07-21ekoa, 37. or. Zuzentarau hori Kontseiluaren 2006/96/EE Erabakiak —L 363 EO, 2006-12-30ekoa, 81. or.— aldatu zuen azkenekoz.

2) Bosgarren artikuluan, 6. paragrafoa honela aldatu da.

- a) Lehen lerrokadan, esaldi hau kendu da: «27. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki».

b) Testu honek hirugarren lerrokada ordezkatu du:

«Aurreko a) idatz-zatiko neurriak 27. artikuluko 2. paragrafoan araututako arautze-prozedurari jarraiki hartuko dira: Aurreko b) eta c) idatz-zatietan aipatutako neurriak, zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 27. artikuluko 2 *bis* paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.

Egokitzat joz gero, Batzordeak egokitu egin ahal izango du 1. paragrafoan aipatu den bost urteko epealdia ere. Neurri hori, zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea duena xede, 27. artikuluko 2 *bis* paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko da».

3) Bederatzigarren artikuluan, honako testu honek 2. paragrafoa ordezkatu du:

«7. Batzordeak betearazpen-neurriak hartuko ditu, finantza-merkatuen bilakaera teknikoa kontuan izateko eta 2., 4. eta 5. paragrafoak uniformetasunez aplikatzen direla bermatzeko. Neurri horiek, zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 24. artikuluko 2 *bis* paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.

Batzordeak artikuluko honetako 4. paragrafoan aipatzen den likidazio-ziklo laburraren gehienezko iraupena zehaztuko du, baita jatorrizko estatu kideko agintari eskudun hura kontrolatzeko mekanismoak ere. Neurri horiek, zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 24. artikuluko 2 *bis* paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.

2008/22/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 76/50, 2008/03/19koa)

## Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Horrez gain, Batzordeak 2. paragrafoan aipatu den gertaeren zerrenda egin ahal izango du, 27. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako prozeduraren arabera».

4) Hamabigarren artikuluan, honela aldatu da 8. paragrafoa:

a) Esaldi hau kendu da: «27. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki».

b) Lerrokada hau erantsi da:

«Neurri horiek, zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 24. artikulua 2 *bis* paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

5) Hamahirugarren artikuluan, 2. paragrafoan, aldaketa hauek egin dira:

a) Esaldi hau kendu da: «27. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki».

b) Lerrokada hau erantsi da:

«Neurri horiek, zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 24. artikulua 2 *bis* paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

6) Hamalagarren artikuluko 2. paragrafoan, 17. artikuluko 4. paragrafoan eta 18. artikuluko 5. paragrafoan, aldaketa hauek egin dira:

a) Esaldi hau kendu da: «27. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki».

b) Esaldi hau erantsi da:

«Neurri horiek, zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 24. artikulua 2 *bis* paragrafoan xedatzen den kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

7) Hemeretzigarren artikuluan, 4. paragrafoan, aldaketa hauek egin dira:

a) Lehen lerrokadan, esaldi hau kendu da: «27. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki».

b) Lerrokada hau erantsi da:

«Lehen eta bigarren lerrokadetan aipatutako neurriak, zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 27. artikuluko 2. *bis* paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

8) Hogeita batgarren artikuluan, aldaketa hauek egin dira 4. paragrafoan:

a) Lehen lerrokadan, esaldi hau kendu da: «27. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki».

b) Lerrokada hau erantsi da:

«Lehen, bigarren eta hirugarren lerrokadetan aipatutako neurriak, zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 27. artikuluko 2 *bis* paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

9) Hogeita hirugarren artikulua honela aldatu da:

a) Laugarren paragrafoa honela aldatu da:

i) Lehen lerrokadaren ostean, beste hau txertatu da:

«Lehen lerrokadako ii) tartekiaren testuinguruan, Batzordeak herrialde bat baino gehiagoko jaulkitzaileei dagozkien arauak ebaluatzeko betearazpen-neurriak ere hartuko ditu. Neurri horiek, zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 27. artikulua 2 *bis* paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

ii) Lerrokada hau erantsi da:

«Aurreko paragrafoaren testuinguruan, Batzordeak beste betearazpen-neurri batzuk ere hartuko ditu, herrialde bat baino gehiagoko jaulkitzaileei dagozkien kontabilitate-arauak ebaluatzeko baliokidetasun orokorreko irizpideak ezartze aldera. Neurri horiek, zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 27. artikulua 2 *bis* paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

b) Bosgarren paragrafoa honela aldatu da:

i) Esaldi hau kendu da: «27. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki».

ii) Esaldi hau erantsi da:

## Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

«Neurri horiek, zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 27. artikulua 2 *bis* paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

c) Zazpigarren paragrafoan, lerrokada hau gehitu da:

«Testuinguru horretan eta 1. lerrokadaren ondorioetarako, Batzordeak baliokidetasun orokorreko irizpideak ezartzeko betearazpen-neurriak ere hartuko ditu. «Neurri horiek, Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 27. artikulua 2 *bis* paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

10) Hogeita zazpigarren artikulua honela aldatu da:

a) Paragrafo hau gehitu da:

«2 *bis*. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5 *bis* artikuluko 1. paragrafotik 4.era bitartekoak eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, eta 8. artikuluan xedaturikoa bete beharko da».

b) Testu honek 3. eta 4. paragrafoak ordezkatu ditu:

«3. Beranduenez 2010eko abenduaren 31n eta, ondoren, gutxienez hiru urterik behin, bere betearazpen-eskumenei buruzko xedapenak berrikusiko ditu Batzordeak eta eskumen horien funtzionamenduari buruzko txostena aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Txostenean, Batzordeak aldaketak proposatzeko beharra aztertuko da bereziki, esleitu zaizkion betearazpen-eskumenen mugak egoki bermatzeko. Aldaketa egin ala ez erabakitzen denean, arrazoiak eman beharko dira zehatz-mehatz. Beharrezkotzat jotzen bada, Batzordearen betearazpen-eskumenen esleipenari buruzko xedapenak aldatzeko lege-proposamena ere erantsiko zaio txostenari».

### 2. artikulua

#### Indarrean sartzea

*Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean zuzentarau hau.

### 3. artikulua

#### Hartzaileak

Estatu kideak dira zuzentarau honen hartzaileak.

Estrasburgon emana, 2008ko martxoaren 11n.

<i>Europako Parlamentuaren izenean</i>	<i>Kontseiluaren izenean</i>
<i>Presidentea</i>	<i>Presidentea</i>
H.-G. PÖTTERING	J. LENARČIČ